

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



Gizarte Ongizaterako  
Foru Erakundea  
Instituto Foral  
De Bienestar Social

▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

[www.araba.eus/ifbs/](http://www.araba.eus/ifbs/)

# Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari baimena 012

datu pertsonalak bildu erabili edo transmititzeko



- Behean sinatzen duenak/dutenek baimena ematen dio(te) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari bezko pertsona eskatzaileak emandako datuak erabiltzera eta beste administrazio publiko batzuetan dauden fitxategietatik jasotako datu pertsonalak eskatu eta erabiltzeko, mendekotasun edo/eta gizarte bazterketa egoeraren aitortpena izapidetzeko xedez, bai eta/edo ezintasuna kalifikatzeko eta/edo garapenaren nahasmendua izatea edo izateko arriskua dagoela aitortzeko xedez ere, baldin eta eskatu egin badira eta baimen honen A) atalean agertzen den pertsona bada haien onuraduna edo onuradungia.
- Behean sinatzen duenak/dutenek baimena ematen diote Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari beste administrazio publikoetan dauden fitxategietatik jasotako datu pertsonalak eskatu eta erabiltzeko; bereziki Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Sailari eskatzeko legez eska daitekeen zerga informazioa, eskatu diren eta baimen honen A) atalean agertzen diren onuradunek edo onuradungaiak dituzten gizarte prestazioak, laguntzak eta/edo zerbitzuak aitortu eta mantentzeko behar dena.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari baimena ematen zaio, eta eragin berberetarako, era horretako informazioa eskatzeko halakorik daukan estatuaren administrazioko, autonomia administrazioko edo toki administrazioko beste edozein erakunderi. Bereziki Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari informazioa eskatzeko, laguntzaile pertsonal gisa jarduten den pertsonaren Gizarte Segurantzako afiliazio, alta eta kotizazio betebeharrak betetzeari buruz.
- Halaber, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak jakinarazten dizu beste administrazio publiko, erakunde eta organismo batzuei zure datu pertsonalen berri eman dakiokela, GOFeren antzeko eskumenak, eta legez egokiak direnak, betearazteko, eskatu diren eta pertsona interesduna onuradun edo onuradungai duten prestazio, laguntza eta/edo gizarte zerbitzuak aitortzeko eta mantentzeko. Era berean, legez gaitutako kasuetan hirugarrengo pertsonari transmititu beharreko datu pertsonalak jakinarazi egingo dira.
- Zuk Foru Erakunde honi baimena ematen diozu –dokumentu hau sinatuz- zure legezko ordezkari edo egitatezko zainzaile izendatutako pertsonarekin behar-beharrezko informazioa trukatzeko, baita osasun datuak eta historia klinikoa ere hala dagokionean, eskatutako gizarte baliabidea edo ekonomikoa ondo emateko, foru erakundeak azterketa egin ondoren.
- Jakinarazten dizugu eskaera honetako datu pertsonalak Laguntzak, Programa eta Zerbitzuak eta Zentroak eta Egoitzak fitxategietan sartuko direla, laguntza, programa, zerbitzu eta Pertsona Ezindua, Esku hartze Soziala, Adingabeen eta Familia eta Pertsona Adindunen eremuko zentro horiek kudeatzeko. Ezin izango dira beste xede batzuetarako erabili datu horiek, Europako Parlamentuaren eta Kontseilua-ren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduari (pertsofinsak oen babesari buruzkoa, haien datu pertsonalei eta . datu horien libre zirkulazio dagokienez) egokitu eta osatzen duen abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa). Datuak Babesteko Euskal Bulegoko erregistroan daude fitxategi horiek, eta beharrezko segurtasun neurriak dituzte.
- Edozein zalantza izanez gero edo datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideen erabilerari buruzko ohar pertsonalen bat egin nahi baduzu, jo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko jendearen harrerarako bulegoetara (San Prudentzio kalea, 30, Vitoria-Gasteiz). Bulegoetan zure NANaren kopia aurkeztu beharko duzu.

**A. Eskatzailearen/onuradunaren datuak espedientea izapidetzeko, eta/edo baimen honek ematen dituen prestazioak, laguntzak eta gizarte zerbitzuak aitortzeko eta/edo mantentzeko.**

Abizenak eta izena

NAN/IFZ •AIZ • Beste bat

**B. Baimena ematen duten eskatzailearen familia unitateko gainerako pertsonen datuak, prestazioak, laguntzak eta gizarte zerbitzuak aitortzeko eta/edo mantentzeko (18 urtetik gorakoak edo errentak jasotzen dituzten adingabeak soilik).**

NAN/IFZ •AIZ • Beste bat	Abizenak eta izena	Lotura eskatzailearekin edo onuradunarekin	Sinadura

-(n), 20  -(e)ko  -ren  -(e)an

Eskatzailearen sinadura

**Legezko ordezkariaren sinadura\***

Adierazi izena, abizenak eta NAN zenbakia irakur daitekeen letraz

**Egitatezko zaintzailearen sinadura\***

Adierazi izena, abizenak eta NAN zenbakia irakur daitekeen letraz

\* Eskatzaileak ez sinatzeko arrazoia.....

**Baimenari buruzko informazio oharra**

Baimena eman behar duten pertsonak, eskatzaileaz gain, familia unitateko kideak dira, eta eskaerarekin batera datorren zinpeko aitortpenean jasota dauden pertsona berak izan behar dute.

Baimena baliozkoa izango da "A" atalean adierazitako pertsona eskatutako prestazio, laguntza eta/edo gizarte zerbitzuen onuraduna den artean; sinatzaileek edozein unetan ezezta dezakete emandako baimena, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera idazki bat bidaliz. Familia unitatean aldatetak izaten badira (18 urtetik gorako kide berri bat sartzea, baimenik eman ez zuenen batek 18 urte betetzea, edo 18 urte bete gabe irabaziak izaten hastea), hauek ere baimen emaileen zerrendan sartu behar dira aurreikusita dauden eraginetarako; horretarako, aldatetaren berri eman behar zaio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari.